



IRAKASLE ETA HEZITZAILE LABORALAK

2003TIK LAN-HITZARMENIK GABE

MURRIZKETARIK EZ

Irakasle eta Hezitzaile laboralak:

Langile kopurua sektor honetan: ~ 1.600 langile.

Langileen kolektiboak:

Dozenteak (~ 530): Maisu/maistrak, bigarren irakaskuntzako irakasleak, musika irakasleak...

Hezitzaileak (~ 1.070): Fisioterapeutak, hezkuntza laguntzako espezialistak, lan-terapeutak, transkriptoreak... Guztiak hezkuntza bereziarekin erlazionatuta.

Lan kontrato mota: Laborala, finko edo behin behinekoa (funtzio publikoko langileak gara, nahiz eta funtzionarioak ez izan).

Lan egiteko eremua: ikastetxe publikoak.

Gure **azken lan-hitzarmena 2003an gauzatu zen**, bi kolektibo laboralak (dozente eta hezitzaileena) fusionatu zirenean, hain zuzen. **Hortik hona, tarteka-marteka negoziazioak eman dira Administrazioa eta sindikatuon artean, baina guztiak antzuak.**

Pasa diren zortzi ikasturte luze hauetan, **Administrazioak azaldu digun mespretxuak bai sektore honen langileoi bai betetzen dugun lanari gure lan-baldintzak hobetu ezinean utzi gaitu.** Horren ondorioak oso ondo ezagutzen ditugu irakasleok zein hezitzaileok: **lan-baldintza prekarioak, koordinatzeko arazoak, ordutegiak gero eta estuagoak, lan zama gero eta handiagoa, eguneko lanaldi luzeegiak...**

Krisiaz oraindik hitz egiten ez zenean, gure sektoreari lan aldarrikapen guztiak ukatzen zitzaizkion. **Lan aldarrikapen hauek, gure eguneroko lana hobetzeko helburuarekin defendatuak, ikasleek kalitateko arreta eta heziketa merezi baitute.** Eta, hori bakarrik lortzen da **lan baldintza egokiak ematen direnean.**

Baina, azken bolada honetan, gure lan baldintzak aldatu dira. Bai, horrela da, aldatu da, baina... okerrera.

2010 urtean aplikatu ziguten soldaten jaitsiera izan zen jasaten ari garen erasorik lehenengoa. Hortik hona, dena jarraian etorri zaigu.

Ikasturte honen hasieran, **sindikatu guztiok eta Administrazioaren artean sinatutako aurrekordioa bertan behera geratu zen, Administrazioa ez delako bere hitza mantentzeko gauza izan.** Pairatu genuen porrota, gure sektorean berpiztutako ilusioak bi hilabetetan desagertzen ikustean, egundokoa izan zen.

Hori gutxi balitz, eta aurreko kolpeagatik oraindik minduta eta lurretik altxatzeko denborarik izan gabe, **Eusko Jaurlaritzak beste eraso bortitza jotzen digu, azken dekretuaren bidez, gastu publikoa murrizteko neurriak ezarriz.**



Azkena, pasa den astean jaso genuen. **Rajoy-ren gobernuak, erreforma laboralarekin, gure sektoreko egonkortasuna eta negoziatzeko ahalmenarekin bukatzeko atea irekitzen du.**

Eraso guzti hauekin, aurrera joan beharrean atzera goaz, eta gainera, abiadura handiz. **Irakasle eta hezitzaile laboralak Hezkuntza Publikoaren langileak gara, eta ondorioz, honek jasaten dituen erasoak guk ere pairatzen ditugu, baita kontrakoa ere.**

Egoera honen aurrean, **Administrazioak Hezkuntza Publikoaren, honen langileon eta, konkretuki, Irakasle eta Hezitzaile laboralen aurka jotzen dituzten erasoak salatu nahi ditugu. Eta, animatu nahi diegu pertsona guztiei zerbitzu publikoen eta kalitateko hezkuntzaren alde borrokatzeko.**

2003ko irakasle eta hezitzaile laboralen 1go lan-hitzarmenaren lan-baldintzak

+

Soldaten jaitsiera (2010eko ekainean)

+

2. lan-hitzarmenerako aurrekordioaren urraketa (2011ko azaroan)

+

Gastu publikoa murrizteko neurriak aplikatzeko dekretua (2012ko otsailean)

+

Erreforma laborala (2012ko otsailean)

KALITATEKO HEZKUNTZA PUBLIKOA KALTETUA

MURRIZKETARIK EZ - INPOSIZIORIK EZ

KALITATEKO HEZKUNTZA ETA ZERBITZU PUBLIKOAREN ALDE